

Labirintoan itsu

Jasone Osoro



Donostiako Koldo Mitxelenako sotoan antolatu zen Gure artea erakusketan ikusi nuen Maider Lopez artista gaztearen lana. Zutabeak izenekoa, hainbat eta hainbat zutabe zuriz eginiko eraikuntza bitxia zen. Labirinto antzekoa. Ez dakit Maiderrek zer esan nahi duen zehazki lan honekin, baina nirekin batera zeuden beste bi neskek eta nik neuk anabasa ordenatu baten antza hartu genion zutabez osatutako labirinto hari. Txoko zuri hartan zorabio antzekoa sentitzen zenuen. Kolore zuriak itsutu egiten zintuen. Zutabe bakoitza sustraitu egiten zen zoruan eta norbera ere lur-azpian sentitzen zen nolabait, une batetik bestera hega aterako zinela pentsatzen zenuelarik. Ez dakit zenbat denbora egon ginen zutabe haien artean. Minutu batzuk izan ziren. Baina nahikoa izan zen artearen eta emakumearen arteko nolabaiteko ikuspegia izateko. Ni ez naiz batere aditua arte kontuetan. Tarteka joaten naiz erakusketetara eta ez dakit emakumezko asko ala gutxi dauden euskal arteari dagokionean. Ez dakit beraien lanen kalitatea nolakoa den. Imajina dezaket, gainontzeko arloetan bezala, artean ere minoria izango direla, gizonezkoen aldean gutxi ezagutzen direnak, eta oso posible da beraien lana ez hartzea gizonezkoena bezain serio. Baina Koldo Mitxelenako erakusketa hartan, Maider Lopezen zutabe zurien artean harrapatua, sentsazio bereziak izan nituen. Nahasiak. Aske sentitu nintzen labirinto korapilatsu hartan. Eta gustura atera nintzen hasiera batean itsu sentiarazi ninduen zuritasun hartatik. Bai, itsua naiz artearen munduan, gauza gutxi ikusi ditut-eta. Baina ikusi dudanak sentsazio anitzak sorrarazi dizkit. Eta hori da artelan batek sortu ahal duen gauzarik ederrena: sentiaraztea. Eta sentiaraztea ez da generoaren arabera lortzen, artistaren lanaren ondorioa da-eta.